

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

OSTIRALA, 2023KO

IRAILAREN 29A

[BIDASOA.HITZA.EUS](https://www.bidasoa.hitza.eus)

[OARSOALDEA.HITZA.EUS](https://www.oarsoalde.a.hitza.eus)

881. ZENBAKIA

KILOMETROAK JAIA, ERRIO ETA OLA ARTEAN

Etzi izango da Kilometroak 23ren Jai Handia, 'Erriola' lelopean, Orereta Ikastolaren ekimenez. Egitarauaren barruan haur eta gazteentzat aukera zabala dago. Ehunka boluntariok lan egingo dute den-dena egoki joan dadin // 4-11

Hondarribiko zonalde ilunak identifikatzeko egitasmoa abiatu du Emekik // 16

'Familian asko gara', familia eredu bakarra ez dagoela azaltzeko ipuina, Ara! Gorputzen eskutik // 18

Oarsoaldea

Errenteria Lezo Oiartzun Pasaia

Oarsoaldeak ere bat egingo du Erriolarekin!

Kilometroak 2023. Urriak 1. Errenterian



Etorri gure txokora!
Zumardian

erraldoiak

Tailerrak haurrentzat familientzat planak

photocall-ak bihur zaitez geologo itsasoratu Badian zehar

ezagutu Arditurriko intxixuen jolasa!





Itziar Navarro Pikabea, Orereta Ikastolako egungo lehendakaria, Linon. Festaren epizentroetako bat izango da ingurua. Erik Gartzia Egaña

Amak ikusaraztea helburu

Etziko Kilometroen jai handiaren hasiera ekitaldiak ildo bat jarraituko du: amei aitortza egitearena. Ama Lurra, ama euskara eta ikastolako amak izango dituzte gogoan, parte hartzailea izango den ekitaldian.

ERIK GARTZIA EGAÑA

Ia mende laurden pasatu da Errenteria-Oreretan Kilometroak jaialdia azkeneko aldiz egin zutenetik. 1999ko urriaren 3ko egun euritsu hartatik denbora pasatu da, baina Orereta Ikastola prest da hirugarrenez festa jasotzeko (lehenengoa 1984an izan zen). Ohitura bihurtu da agintariak hasiera ematea Kilometroak jaialdiari. Aurten herritarrak ere gonbidatu dituzte hasiera ekitaldi horretara. Etzi da 2023ko Kilometroen jai handia.

«Ekitaldi horri buelta bat eman diogu, eta ibiltaria izango da», iragarri du Itziar Navarro Orereta Ikastolako lehendakariak. 10:00etan, Lekuona ondoko zubian, Navarrok berak eta Aizpea Otaegi alkateak harrera egingo diete gonbidatuei: agintariak, beste ikastoletako ordezkariak, Errenteria-Oreretako gainontzeko eragileetakoak... Bertatik Lino aldera abiatuko dira, eta Emakumeen Etxean bukatuko dute, Nekane Artola Ikastolen Elkarteko lehendakariaren, Jokin Bildarratz Hezkuntza sailburuaren eta Eider Mendoza ahaldun nagusiaren hitzartzeekin. Horraino, ohikoa izan dena. Bidean musikariak, dantzariak,



BENGOETXEA
AUTOBUSAK

Tel.: 943 34 17 74

EGIBURUBERRI POLIGONOA, 25 B. 20100 ERRENTERIA.
info@bengoetxeabusak.com - www.bengoetxeabusak.com/eu

bertsolariak eta abarrek lagunduko dute segizioa, eta komunitateko kideak parte hartzera gonbidatu dituzte. Bertan izango diren artistek ikastolarekin duten harremanari errepaso eman dio Navarrok: «Guraso eta ikasleek osatzen dute txaranga; dantzan eta bertsoetan komunitateko jendea izango da; Esti eta Mikel Markez —aita ikasle ohia da—; Ereintza dantza taldea, beti harreman handia izan duguna haiekin; bertsolariak...». Bidean, gainera, etxeberritarren etxe paretik pasatuko dira. Han izan zuen ikastolak lehen ikasgela, eta «keinu bat» egingo dute. Egungo egoitza batetik —Lino-koa— ere pasatuko dira.

Hasierako ekitaldi horri lotura eman nahi dion ildo *ama* kontzeptua izango dela esan du Navarrok. Hiru modutan izango da. Lehenengoa honakoa da: «Ama Lurra aipatuko dugu, urte osoan zehar erriorearen bueltan egin baititugu ekitaldiak, baina baita ere Añabitarteko ingurune berde horrengatik». Bigarrena «Ama Euskara» izango da, ikastolaren «bihotza» eta «izateko arrazoi» gisa definitu du. Hirugarrena, ikastolako amak euren izango dira; aitortza egingo diete. «Konturatu ginen ikastolaren historia aipatzen denean, beti aipatu izan ditugula gizonak. Lehengo gizartea hala zen. Haiekin hitz eginda, aipatu ziguten lanerako edozein momentutan prest zeuden amak zirela, eta isilean egin zuten hori azaleratu nahi dugu». Ardatzak, beraz, hiru izango dira: «Komunitatea, hizkuntza eta egindako lanari eskertza».

Kilometroak-en helburuak

Kilometroak jaialdiak hainbat helburu izan ohi ditu, materialak eta sinbolikoak. Ukiezina ez, baina sentigarria den asmoari dagokionez, ikastola zer den eta zer suposatzen duen ezagutarazi nahi zuten, bai ikastolaren komunitatearen barruan, baita Errenteria-Oreteretan bertan ere. «Ikastola duela 60 urte sortu zutenek oso argi zeuzkaten zeintzuk ziren ezaugarri horiek, baina, beharbada, neurri batean lausotzen joan dira. Horiek berreskuratu eta indartu nahi genituen, bai komunitatearentzako, baita herriarentzako ere; gogorarazi nahi dugu zerk bereizten gaituen beste proposa-

‘Erriola’, arrastoa uztera etorri den leloa

Aurtengo Kilometroak jaialdiaren leloa *Erriola* da. Zazpi hizkietan lau kontzeptu barnebiltzen ditu: *Erriola*, *herria*, *ola/fabrika* eta *ikastola*. Navarrok azaldu duenez, ikastolaren komunitatea islatu nahi izan dute lelo horrekin, ikastolaren inguruan ibiltzen diren pertsonak. Eta Errenteria-Oreterako itsasadarrarekin alderatu du: «Erriok hori badauka: itsasoa eta ibaia batzen diren tokia da; ura ba-

tzuetan gazia da eta bestetan gozoa; batzuetan gora egiten du mareak, eta bestetan behera... Mugitzen den komunitate hori irudikatu nahi genuen».

Lelo, baina, Kilometroak-en festa bukatzearekin batera ez da ahanzturaren amildegian barrena galduko. Izan ere, geratzeko etorri da: pasa den maldalenetan ikastolaren txosnari Erriola izena jarri zioten, eta hala izaten jarraituko du. «Izena jarri ziotenak pozik egoteko moduan dira!», ebatzi du, txantxetan, Navarrok.



Añabitarte baserria konpontzeko erabiliko dute etekinen zati bat. ORETERA IKASTOLA

men batzuegandik». Navarroren ustez, urtean zehar egin dituzten ekitaldiek erakutsi dute ezaugarri horiek mahai gainean jarri dituztela.

Helburu ekonomikoak, berriz, hiru multzotan sailkatu ditu. Beste Kilometroak jaialdietan eraikin berriak-eta egiteko izan ohi zen dirua, baina aurtengoa «estrategikoak» izango dira helburuak. Lehen esparrua euskararena izango da. «Nahiko genuke Kilometroak-ek, ikastolan ez ezik, herrian ere zer bait uztea», esan du. Horrengatik, herriko euskalgintzako zein hezkuntzako eragileekin proiektu bat osatu nahi dute, herrian euskararen erabilera hauspotzeko.

Bestalde, Zubiak Eraikiz proiektuari zimendu berriak ezarri nahi dizkiote.

Nafarroa eta Lapurdiko hainbat ikastolarekin harremana du ikastolak, eta pandemiak ukituta utzi zuen erlazioa. «Errealitate horiek ezagutzea», «elkarraren berri izatea», eta «proiektu berriak aurrera ateratzea» izango dute xede.

Hirugarren helburu ekonomikoa komunitateari begirakoa da. Añabitarte baserria txukundu nahi dute, ikastolaren «ikur» dena. «Ikasleen, ikasle ohien edo familien topagune izan da. Berrero erabilgarri izatea nahiko genuke, guretzat, zein beste ikastolekin partekatuzko».

Bidea eginda, desio bakarra du Navarrok: dena ongi joan dadila. Gainera, urte osoan lanean aritu eta etzi ere horretan arituko direnek gozatzeko tartea hartzea espero du. ✕

URRIAK 1

DONOSTIA LEZO
ORERETA-ERRETERIA

- (P1) Pasaiaiko portua APARKALEKUA
- (P3) Txirrita Maleo APARKALEKUA
- (P4) Agustinak APARKALEKUA
- LURRALDE BUS geltokia
- Renfe
- Euskotren
- JANTOKIA Fernandez Landa
- ANBULATEGIA
- TONBOLA
- EUSKARAREN ERRIOA
- Oinezkoen gunea

- GUNEETAKO ZERBITZUAK**
- Komunak
 - Osasun gunea
 - Ogitarakoak
 - Edariak
 - Kilometroak denda
 - Tiketerak

- ERRIOA**
 - EUSKALTEL REALA
 - LABORAL KUTXA
 - EITB GOIAZEN
 - MAHALA IZOZKIAK
- HAURREN ERRIOA**
 - KAIKU TXOTXONGILOAK
 - BIHOTZ URDINA

- ESMALTERIA**
 - BAQUÉ KAFAA
 - MAHALA IZOZKIAK

- GALLETERA**
 - MAHALA IZOZKIAK

- LINO**
 - EUSKO LABEL PARRILLA
 - TONBOLA
 - EUSKARAREN ERRIOA
 - EROSKI TAILERRA
 - MAHALA IZOZKIAK
- ZAMALBIDE**
 - TALOAK
 - BERRIA



Errioa guban hasten da...



...gozatu kilometroak!

Irunen eta Beran

aurkituko gaituzu


943 63 45 36

www.goieko.com

Galletera

Gernika plaza

WILLIS DRUMMOND 11:15



EIZEN ON JAZZ BAND 13:00

ZILIBITO RECORDS 14:30

TRILITA 16:00

DUPLA 18:00


Lino

Agirre Lehendakariaren plaza

ESTI ETA MIKEL MARKEZ 11:00



GOZATEGI 13:15



dj.bull 15:45

11:00 - 17:00

MAKRAME TAILERRA


ARTISAU AZOKA eta **ESKULAN TAILERRA**

EROSKI ELIKAGAI TAILER eta **LUDOTEKA**

Zamalbide

BATUKADA FEMINISTA 11:00

AMATERRA 11:15



PALEOLITIKOAREN INGURUKO TAILERRA (ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA) 12:30

IPUIN KONTALARIA (BERRIA) 14:00

BERTSO SAIOA (KEMPELAR BERTSO ESKOLA) 15:30

EMAKUMEEN HERRI KIROL ERAKUSTALDIA 17:00


Esmalteria

Koldo Mitxelena plaza

ERRALDOIAK 11:00

AKORBELTZ XV URTEA 12:00

ITHAKA 14:30



JANUS LESTER 16:45

GRAFFITI eta ARTE PLASTIKOEN TAILERRAK

Alhondiga

HERRI KIROLAK 11:00

ANDONI OLLOKIEGI 16:30

Errioa

Iztietia pasalekua

TAI CHI 11:00

HOLA ZIRKUA: AKROBAZIAK 12:30

PAILAZOAK 15:00

Go! gazen 17:00

11:00 - 17:00

PUZGARRIAK Laboral Kutxa

Reala TXOKOA Euskaltel BIZIKLETA IBILBIDEA

HAURREN ERRIOA APAINTEZKO TAILER BEREZIA 11:00

12:00 - 16:00

KAIKU TXOTXONGILOAK

BIHOTZ URDINA

ANTZERKIA SORTZEKO TXOKOA

AURPEGIA MARGOTZEKO TXOKOA

DJ KAKTUS 16:00

ERRONKA

HERRIKO ENPARANTZA

Muxikoak 11:30

Kukai 12:15

Ereintza dantza taldea 12:45

Kantujira 16:00

EGUNEAN ZE HAR KALEAK GIROTUZ

Ikastolako txarangila Trikitilariak Banda Matrakan elektrotxaranga
 Etxepare txaranga Txistulariak Dultzainak Photocall-a

PRIMERAN PASA PASATU GABE

ITZULI BASA

Alkohola zirkuituan sartzea debekatua dago

Beira zirkuituan debekatua dago

Jaiak aske bizi eta gozatu

PASAIÀ + LEZO

LIZEOA

Erriolarekin bat



www.lizeoa.eus



Haurtzaro Ikastola

bizitzarako hezkuntza

Erriola, erriola, Orereta Ikastola, Haurtzarotik, "segi hola!"

kilometroak
2023 ORERETA-ERRENTIA





URMENDI HAUR ESKOLA



Oiartzo



Kizka Ikastola



ikastolenkartea

www.haurtzaroikastola.eus

“Herrian sinergia berriak sortu dira”

NAROA PEREZ CORTAJARENA KILOMETROEN KOORDINATZAILEA

lazko urrian Orereta Ikastolak Kilometroen lekukoa hartu zuenetik, asko eta asko izan dira etziko egunerako bidea egiteko egin diren ekitaldi eta ekintzak. Perezek sukaldetik bizi izan ditu denak, ideien eta nahien faktoria koordinatzen izan da.

URKO ETXEBESTE PETRIRENA
ERRENTERIA-ORERETA

Etzi da Kilometroak 23ren jai handia. Baina egitasmoa aurkeztu zenutenetik, etzira arteko bideari eman nahi zenioten garrantzia. Nola joan da bide hori?

Poliki-poliki eraikitzen joan gara bide hori. Hasieran, talde txiki bat hasi ginen lanean, baina oso indartsu. Adibidez, Lekuona Fabrikako aurkezpena [2022ko azaroan] uste dut oso indartsua izan zela, eta azaldu genuen zer ginen gai egiteko: handia izan zen alde guztietatik begiratuta. Taldea handitzen joan da, batzordeak ugaritzen, eta apurka indarra hartzen joan da antolaketa taldea, beraz, Kilometroak bera. Prozesua mantso joan da, baina trenak abiada handia hartu du, urte osoko egitaraua oso beteta joan delako. Orduan, hasieran mantso joandako hori, arrapaladan joan da handitzen.

Bide hori egiteko ehunka herritar aktibatu dituzue. Zaila izan al da hori?

Erantzun oso ona izan dugu herritarren

partetik. Adibidez, herriko eragileekin bilera handi bat egin genuen. Gu entzuz tera etorri ziren, egin nahi genuenez jabetzera. Hala, hainbat unetan gugana etorri dira ezer esan gabe; eta behar izan ditugunean, hor egon dira laguntzeko prest. Beti baietz esan digute, eta oso eskertzekoa da erakutsi diguten babesa. Erraz jarri digute bidea. Herritarrek eta herriko eragileek izan duten inplikazioa oso ona izan da. *Kilometroak* edo *Orereta Ikastola* entzun, eta ez dute zalantzarik izan laguntzeko.

Beraz, esan daiteke Orereta Ikastola herriarren egunerokoan eta izaeran txertatua dagoela?

Kilometroen antolaketak hori hala dela erakutsi digu. Asko garela egia da: ikasle ohien, familien eta bestelako herritarren artean masa handia gara. Beti dago norbait ikastolarekin harremana izan duena edozer antolatu nahi denean. Eta gakoa hori izan daiteke: zerbait antolatzerakoan, askotan deirik egin gabe ere, gugana hurbildu dela jende asko. Zailtasunak izan dira, noski baietz, oraindik ere gi-

zartean badaudelako gauza batzuk aldatzeko zailak direnak, adibidez boluntario bezala lan egitearena. Zorionez, ordea, behar ziren gauzak lortu ditugu, eta genituen helburuetara iritsi gara. Ikastola herrian txertatuta dago Orereta Ikastolak 60 urte bete dituelako, herri-tik sortu zelako, ikastolarekin era bateko edo besteko harremana izan duen jende asko dagoelako, eta beraz, behar genuen babesa jaso dugu.

Bideaz hitz egin duzu. Zerk asebate zaituzte bereziki?

Ekitaldi bat nabarmendu baino, ekin-tzaile izateak berak asebate gaitu. Hasieran, hainbeste gauza egitea planteatu genuenean, izu sentsazioa izan genuela ezin dugu ukatu. Erritmo oso bizia izan dugu, gauza asko egin dira, eta horrek antolaketa egitura bera asko tentsionatu du. Izan ere, dena batzordeen bidez egingen da, batzorde horiek lan orduz kanpo bildu dira, bertako kideak boluntarioak direlako.

Asebate gaituena izan da eskertzeko aukera izatea. Hau da, *Euskaldunon Egunkaria*-rekin gertatu zena oroitarazi eta *Berria* sortu izana eskertzeak asebate gaitu, gainera, ikasleen parte hartze zuzenarekin. *Batasunaren bidea* zoragarria izan zen: gai izatea gure herria eta Donostia giza kate erraldoi horrekin lotzea izugarria izan zen. *12 orduz Erriolan* egitea ere sekulakoa izan zen, pentsa, hamabi orduz jarraian herriko eragile pila baten lanarekin kalean jarduerak izatea eskertzekoa da; Adaxka Berriak proiektua Landarbasorekin, *Urmugan* egitasmoa... Oso gauza bereziak egin dira, eta hasieran markatutako lerroekin erabat bat egin dute. Denek ginga jarri diote gure *Erriola* leloari. Ea gai garen hori guztia igandean islatzeko.

Igandean du iraugitze data Kilometroak 23k. Honek guztiak arrastorik utziko al du aurrera begira?

Erriola ez da bakarrik Kilometroak. Komunitatea da Erriola, elkartzen gaituen zerbait. Gure aiton-amonek utzi ziguten zerbait, eta aldi berean, guk gure ondorengoei utziko diegun zerbait. Eta ez da ikastolarena bakarrik. Madalen Jaietan, adibidez, txosnako lantaldeak erabaki zuten Orereta Ikastolaren guneari Erriola



Naroa Perezek Kilometroen erraiak ondo aski ezagutzen ditu. Errioko oletan izan da lanean den-dena ondo joan dadin. Imanol Saiz

deitzea. Eta hori horrela izango da aurrerantzean ere. Hori adibide bat da. Aldi berean, herrian sinergia berriak sortu dira, ezagutzen ez zen jendea elkarrekin lanean —eta oso ondo— aritu da; lan egiteko, gauzak ikusteko modu berriak sortu dira. Eta horiek dira aurrerantzean geldituko direnak.

Etziko jai handia. Zer gustatuko litzaizuke entzutea igandekoari buruz?

«Oso ondo pasa dut», gustatuko litzaidake entzutea. Batez ere hurrek ondo pasatzea nahi dut, haiek etorkizunean egunaz oroitzapen ona izatea. Hurrek eta gazteek oso ondo pasatzeko eta askotariko gauzak egiteko egitaraua antolatu dugu. Sekulako eskaintza dago, eta egun osoa gauzez beteta dago. ✕



OIARTZUNGO
UDALA



Oiartzungo Udala ere
marean gora, Erriola!



AURKEZPENA

HITZA

2022ko azaroaren 4an. Lekuona Fabrikak jaso zuten 2023ko Kilometroen aurkezpen ekitaldia. Bete egin zen aretoa, jaialdi koloretsu eta parte hartzailean. Leloa, *Erriola*. Hurrengo egunean, azaroaren 5ean, zabaldu zuten Herriko Plazako denda.



GIZA KATEA

Olaia Gerendiain

Martxoaren 24an. Orereta Ikastolak, Ikastolak Herriarik eta Euskaltzaindiak elkarlanean antolatuta, euskara batuari gora-zarre egiteko Donostia eta Errenteria-Orereta arteko giza katea egin zuten martxoaren 24ko goizean, milaka partaiderekin. Arratsaldean erakunde ekitaldia izan zen udaletxean.



EGITARAUA

June Romatet

Otsailaren 23an. Etzikoa egun handia bada ere, horra iristeko bidea ere oparoa izan da. Aurretiko ekitaldien zerrenda otsailaren 23an aurkeztu zuen Kilometroak-ek, herriko eta kanpoko erakunde eta eragileen babespean.



KILOMETROAK 23

EZ AHAZTEKO

Otsailaren 20tik 24ra. Eskertza. Hori izan da Kilometroen aurretiko ekitaldien mamietakoa. Otsailean 20 urte bete ziren *Euskaldunon Egunkaria* itxi zutenetik, eta ondoren sortu zuten nazio ikuspegiko euskarazko egunkari berria, *Berria*. Bortxaz itxitako hedabidea omentzeko, eta haren ordezkoa eraiki zutenei aitortza egiteko aste osoko egitaraua antolatu zuten, Orereta Ikastolako ikasleen partaidetza handiarekin. *Kantu bat gara* ekitaldia (irudian) egin zuten otsailaren 24an, Jon Maiarekin.

SINDIKATO
 --- KAXUELITAK --- PINTXOAK --- **TABERNA**
 --- PLATER KONBINATUAK ---
 --- OGITARTEKOAK ---
Erriolaz gozatu euskaraz!
 Madalena kalea, 38 / 943 34 61 83 / Orereta



12 ORDUKO ERRONKA

KILOMETROAK 23

Maiatzaren 6an. Kilometroen antolatzaileek errenteriarren inplikazioa eskatu, eta lortu dute etziko jai handiaren aurreti-koetan. Horren seinale, *12 orduz Erriolan* egitasmoa: egun erdiz, jardueraz bete zuten eragileek herria.



BIHOTZ HANDI BAT

ORERETA IKASTOLA

Ekainaren 3an. Orereta Ikastolaren Eguna ekainaren 3an izan zen, ikastolaren egoitza nagusian. Berezia izan zen aurtengoa, Kilometroen arrastoa nabaria izan baitzen. Bihotz handi bat egin zuten bertan, ikastolaren komunitate osoa eskertzeko.



URMUGA

KILOMETROAK 23

Uztailaren 19an. Urmuga jaialdiak geldialdia egin zuen Errenteria-Oreretan uztailaren 19an, Kilometroen aitzakiapen. Itsasotik iritsi zen musika herrira, eta Añabitarte baserri inguruan izan ziren kontzertuak, toki seinalatuan.



ABESTIA ETA BIDEOKLIPIA

KILOMETROAK 23

Irailaren 1ean. Janus Lester taldeak egin du Kilometroen abestia, *Erriola*. Udako sintonia izan da herrian. Horren bideoklipa hilaren 1ean aurkeztu zuten: bertan, Orereta Ikastolako komunitateak eta herriko eragileek espazio berezia dute.



GARBITU
INDUSTRIA GARBIKARIAK

Euskararen errioa
Gozatu kilometroak!

euskal@garbitu.net
628 474 267